

URRIAREN 03TIK 08RA

# IPARRA GALDU GABE

IPAR EUSKAL HERRIA; SIN PERDER EL NORTE

## GETXO 2006

Antolatzaileak/Organizan:



Babesleak/Patrocinan:



Laguntzailea/Colabora:



# IPARRA GALDU GABE 06 Ipar Euskal Herria Getxon ezagutarazteko jarduerak

**IPIUIN KONTALARIA** (Cuenta - cuentos)  
Urriaren 3an/4an - 3/4 octubre

## XAN ERROTABEHERE

Xan Errotabehere, euskal kondairetan oinarritzen den ipuin kontalari berezia da. Mundu fantastiko horiek ikertzen ditu Xan Errotabeherek, eta egiten dituen saioetan, lehenik, gai horretaz behar diren argibideak ematen ditu, eta gero, ipuinen mundura eramaten gaitu. Sortzez baigorriarra (Baxe-Nafarroa) eta Uztaritzen (Lapurdi) bizi da Xan. Ingelesa eta euskara irakasle izana da institutuetan. Azken urte hauetan, ipuinak kontatzen ditu, goxoki eta xinpleki...

Xan Errotabehere es un cuenta-cuentos especial que en sus actuaciones, y una vez realizadas las explicaciones necesarias, nos lleva al fantástico mundo de los cuentos vascos. Xan es natural de Baigorri (Baxe-Nafarroa) y reside en Uztaritze (Lapurdi). Xan ha sido profesor de inglés y euskera en institutos pero, por fortuna, durante los últimos años se dedica a narrar cuentos, simple pero dulcemente.



**KONTZERTUA** (Concierto)  
Urriaren 4an - 4 octubre

## MAIALEN ERROTABEHERE (ahotsa)

Philippe Albor (gitarra) – David Usabiaga (gitarra)

Maialen Errotabeherek txikitatik du kanturako zaletasuna. 2000. urteko Kantu Txapelketan parte hartu eta finalean lau sari irabazi zituen, horien artean, bakarlari onenaren eta ahots onenaren sariak. Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Pierpol Berzaitz... kantarien aurretik kantatzen du kontzertuetan. Euskal Herritik kanpo ere ibiltzen da, Parisen, Bartzelonan, Quebecen... Getxon, plazaratu duen «Nere munduak» bere azken diskoaren abestiak eskainiko dizkigu. Maialen Errotabehere, gaur egun, Ipar Euskal Herriak daukan kantari gazte erakargarria!

**Kontzertura doazenen artean BATEK MILA ikuskizunera joateko sarrerak zozketatuko ditugu.**

Desde pequeña ha demostrado Maialen Errotabehere su afición por el canto. Participó en la edición del año 2000 del Kantu Txapelketa, consiguiendo cuatro premios entre los que se incluyen los de mejor solista y mejor voz. Maialen suele actuar como telonera en los conciertos de Benito Lertxundi, Ruper Ordorika, Pierpol Berzaitz entre otros, pero también ha cantado fuera del País Vasco, en París, Barcelona, Quebec... En Getxo nos ofrecerá temas de su último disco «Nere munduak». Maialen Errotabehere, joven promesa del mundo de la canción que Iparralde nos ofrece.

**Entre los y las asistentes al concierto se sortearán entradas para el espectáculo BATEK MILA.**



**FOIE DASTAKETA** (Degustación de foie)  
Urriaren 4an - 4 octubre

Arratsaldeko 19:00etatik aurrera eta, Maialen Errotabeherearen kontzertuak irauten duen bitartean, The Piper's taberna irlandarrean FOIE DE LA MAISON DUFREXE Iparraldeko foiea dastatzeko aukera izango da.

A partir de las 19:00, en la taberna irlandesa The Piper's y, mientras dure el concierto de Maialen Errotabehere, se podrá degustar FOIE DE LA MAISON DUFREXE, foie de Iparralde.

**Hitzaldia eta Errezitaldia**  
(Conferencia y recital)  
Urriaren 5ean - 5 octubre

## LUCIEN ETCHEZHARRETA ("Mende erdia Iparraldeko literaturan")

Sortzez hazpandarra eta Baionan bizi den Lucien Etchezaharreta euskal munduko eragile suharra da. Kazetaria, irratiko esataria eta MAIATZ literatura aldizkariaren zuzendaria. Euskal literatura orokorki, eta Iparraldekoa bereziki, errotik ezagutzen ditu. Azken berrogeita hamar urte hauetan euskal baratzean agertu diren loreen berri emango digu, Kattalin Totorika eta Miren Aranburu aldean ukanen dituela idazle zenbaiten zatiak gozarazteko.

**Hitzaldira doazenen artean BATEK MILA ikuskizunera joateko sarrerak zozketatuko ditugu.**

Lucien Etchezaharreta, hazpandarra de nacimiento y residente en Baiona es ferviente promotor del euskera. Periodista, locutor de radio y director de la revista literaria MAIATZ, es conocedor de la literatura en euskera, pero sobre todo, de la literatura en euskera de Iparralde. Lucien realizará un recorrido por los trabajos literarios de Iparralde de los últimos 50 años. Estará acompañado por Kattalin Totorika y Miren Aranburu que recitarán textos de diversos autores.

**Entre los y las asistentes al acto se sortearán entradas para el espectáculo BATEK MILA.**





# IPARRA GALDU GABE 06 Ipar Euskal Herria Getxon ezagutarazteko jarduerak

## **KONTZERTUA** (Concierto) Urriaren 6an - 6 octubre

### **NIKO ETXART, DOMINIKA ETXART ETA ROBERT LARRANDABURU**

Maskarada eta pastoralen bidez Zuberoak jakin izan du bere kultura bizirik mantentzen; baina, Zuberoak "a capella" aritzeko trebeak diren kantariak ere baditu. Niko Etxart, bere aita Dominika eta Robert Larrandaburu dira tradizio horren adibide argiak. Robert Larrandaburu larraintarra da eta Dominika eta Niko Etxart Altzürükükoak. Getxon, euren ahots indartsuez baliatuta, amodioari, herri minari eta, nola ez, euskarari kantatuko diete. Satisfegia plazan eskainiko diguten kontzertuan EPERRA izenarekin argitaratu duten azken lana aurkeztuko digute.

**OHARRA:** eguraldi txarra egingo balu kontzertua The Piper's tabernan izango litzateke.

Además de por las Maskaradas y por las pastorales, Zuberoa ha sabido mantener viva su cultura por la tradición de sus cantantes, que en muchas ocasiones lo hacen "a capella". Buen exponente de esta tradición lo constituyen Niko Etxart, su padre Dominika y Robert Larrandaburu. Robert Larrandaburu es natural de Larraine, y de Altzürükü son Niko y su padre Dominika. En Getxo, aprovechando sus poderosas voces, nos ofrecerán temas de su último trabajo EPERRA, en el que cantan al amor, al país y, como no, al euskera.

**AVISO:** en caso de lluvia el concierto se trasladará a la taberna irlandesa The Piper's.



## **KANTU AFARIA** Urriaren 6an - 6 octubre

Kontzertuarekin nahikoa izan ez dutenentzat Niko Etxart, Dominika Etxart eta Robert Larrandabururekin KANTU AFARIA antolatuta du Getxoko Udaleko Euskara Zerbitzuak. Aukera ona betiko kantak luxuzko hirukote batekin kantatzeko: "Eperrak baditizü bere bi hegalak..." Afarira joateko txartelak Villamonteko Kultur Etxean erosi litezke urriaren 4ra arte, 15 euroren truke.

**KANTU AFARIra joateko txartela erosten dutenek BATEK MILA ikuskizunera joateko sarrera jasoko dute opari.**

Para aquellas personas a las que el concierto les sepa a poco, el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Getxo ha organizado una KANTU AFARIA con Niko Etxart, Dominika Etxart y Robert Larrandaburu. Inmejorable oportunidad de cantar las canciones de siempre acompañado por un trío de lujo: "Eperrak baditizü bere bi hegalak..."

Los tickets para la cena se podrán adquirir, por 15 euros, en el Aula de Cultura de Villamonte hasta el día 4 de octubre.

**A los y las asistentes a la cena se obsequiará una entrada para el espectáculo BATEK MILA.**

## **KALE ANIMAZIOA** (Animación de calle) Urriaren 7an - 7 octubre

### **BURRUNKA TALDEA**

BURRUNKA TALDEA mestizaiaren erakusgarri ona da, izan ere, ederto uztartzen baititu gaitak eta gazteen artean modan dauden perkusio-instrumentuak.

Uztaritzeko (Lapurdi) talde hau 20 perkusio-jolek eta 10 gaita-jolek osatzen dute, eta era horretan lortzen dute sortzen duten musikari izaera berezia ematea. BURRUNKA taldearen kreazioek kalea festa bihurtzea lortzen dute. Ipar Euskal Herrian hain ospetsu den talde honek laster lortuko du hemen ere ezagun izatea. Ez galdu aukera.

BURRUNKA TALDEA es un buen ejemplo del mestizaje, ya que combina el sonido de gaitas con el sonido de la percusión, tan de moda entre los jóvenes. El grupo originario de Uztaritze (Lapurdi) lo componen 20 percusionistas y 10 gaiteros/as, con lo cual logran dar un sonido característico a su música. Burrunka consigue en sus actuaciones convertir la calle en una fiesta.

Estamos seguros de que este grupo, tan famoso en Iparralde, pronto logrará ser también conocido en estos lares. No pierdas la oportunidad.



## **OSTREN DASTAKETA** (Degustación de ostras)

Urriaren 7an - 7 octubre

BURRUNKA taldearen kontzertuekin batera, Algortako Geltokiko plazan, LA CYBELE Iparraldeko OSTRAK dastatzeko edo erosteko aukera izango dugu. Eta jakina, ostrekin batera, ez dago txakolin tragoxka eder bat edatea bezalakorik!

**Ordutegia:** 11:00-20:00

Además de los conciertos de BURRUNKA, en la plaza de la Estación de Algorta podremos disfrutar degustando o comprando ostras LA CYBELE de Iparralde. ¡Y con las ostras qué mejor que un buen trago de chacolí!

**Horario:** 11:00-20:00

# IPARRA GALDU GABE 06 Ipar Euskal Herria Getxon ezagutarazteko jarduerak

## BATEK MILA IKUSKISUNA

(Espectáculo Batek Mila)

Urriaren 8an - 8 octubre

Antzerkia, musika, kantua eta dantza elkartzen dituen ikuskizuna

Ballet Biarritz konpainia, Baionako Musika Kontserbatorioa, Beñat Achiary kantaria, eta Akitaniako eta Baionako Eszena Nazionala ez dira egunero elkartzen ikuskizun bat prestatu eta publikoari eskaintzeko. Euskal Kultur Erakundeak ekoizten duen BATEK MILA ikuskizunean bai, elkartu dira dantzak, kantuak, musika eta kondairak ederki gurutzatzen dituen ekitaldia getxotarrei eskaintzeko.

Bederatzi antzerkilari, kantari bakarlarria eta dantzari bat; bistan da, hasiera-hasieratik badela mugimendua taula gainean! Basajaun eta lamien ipuinak herritarren arteko gertakari bitxiekin batera agertzen dira, irri egiteko aukera ona eskainiz. Bidaia harrigarria bezain goxoa, Euskal Herriko ipuinak eta alegiak dastatzeko eta gozatzeko...

Getxon egingo da BATEK MILA ikuskizunaren Bizkaiko estreinaldia. Ez galdu aukera, aprobetxatu.

Espectáculo que une teatro, música, canto y danza

No todos los días se juntan el Ballet Biarritz, el Conservatorio de Baiona, el cantante Beñat Achiary y la Escena Nacional de Baiona, para preparar y ofrecer un espectáculo al público. En el espectáculo BATEK MILA, producido por Euskal Kultur Erakunde, lo han hecho, para deleitar a los y las getxotarras con una función que combina la danza, el canto, la música y el teatro.

Nueve actores, un cantante solista y una bailarina aseguran que en el escenario disfrutemos de una actividad constante. Junto con Basajaun y las lamias, se nos contarán atractivas historias cotidianas, ofreciéndonos la oportunidad de sonreír. BATEK MILA es una buena oportunidad para adentrarnos en el mundo de los cuentos y fábulas de Euskal Herria en un viaje tan asombroso como agradable.

El estreno de BATEK MILA en Bizkaia se realizará en Getxo. No pierdas la oportunidad.

Sarrera: 6 euro. Aldez aurretik 5euro.  
Salmenta: Algortako Kultur Etxean,  
BBKren orotarako kutxazainetan

Entrada: 6 euros. Anticipadamente 5 euros.  
Venta de entradas: Aula de Cultura  
de Algorta, cajeros multiservicio BBK

[www.bbk.es](http://www.bbk.es)

☎ 944 310 310

📍 944 319 280

EKINTZA	LEKUA	EGUNA	ORDUA
XAN ERROTABEHERE IPUIN KONTALARIA	Getxoko instituetan	06-10-03/04	
KONTZERTUA MAIALEN ERROTABEHERE Maialen (ahotsa), Philippe Albor (gitarra) David Usabiaga (gitarra) * Sarrera doan	The Piper's	06-10-04	20:00
FOIEren DASTAKETA	The Piper's	06-10-04	19:00etatik aurrera
HITZALDIA eta ERREZITALDIA LUCIEN ETCHEZHARRETA "Mende erdia Iparraldeko literaturan" Literatura zatien irakurleak: Kattalin Totorika eta Miren Aranburu	Itxasganen	06-10-05	19:00
KONTZERTUA: NIKO ETXART, BERE AITA DOMINIKA ETA LARRANDABURU ETA GERO KANTU AFARIA * Sarrera doan	Satistegi plaza	06-10-06	20:00
KANTU AFARIA NIKO ETXART, DOMINIKA ETXART ETA ROBERT LARRANDABURUekin * 15 euro	The Piper's	06-10-06	21:30
KALE ANIMAZIOA BURRUNKA TALDEA	Algortako Geltokiko plaza	06-10-07	12:00etan eta 18:00etan
OSTREN DASTAKETA	Algortako Geltokiko plaza	06-10-07	11:00 - 20:00
BATEK MILA IKUSKIZUNA Antzerkia, musika, kantua eta dantza Prezioa: 6 euro, aldez aurretik 5 euro	Getxo Antzokia	06-10-08	19:00

